

Hegazti-ustiategien araudiaren berrikuntzak

[DESKARGATU PDF](#)

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa hegazti-ustiategien ordenazio-arauak arautuko dituen Errege Dekretuaren zirriborroa ari da prestatzen,

errutekoak eta haragiarenak barne.

Orain arte, soilik haragi-ustiategiek zuten ordenazio-arau bat (1084/20059 Errege Dekretua, indargabetu egingo zutena), eta errutekoek ez zuten inolako estaldurarik.

Besteak beste, Dekretu horren helburua ustiategi horien eskakizunak animalien ekoizpenaren eta **osasunaren**

egungo erronketara egokitzea da,

biosegurtasunean, ingurumenaren

babesean eta

animalien ongizatean zentratuz.

Arauk, ustiategiaren tamainuaren arabere, badintza desberdinak ezarriten ditu.

Ustiategien definizioa tamainaren arabera

Aplikazio-eremua hegazti-ustiategi guztiek osatzen dute, hau da, arrautzenak, haragiarenak eta ugaltzekoak, autokontsumora zuzendutakoak gehitu gabe. Tamaina txikikoek salbuespen batzuk dituzte. Guztira, azken horien artean bi ustiategi mota bereiz daitezke:

Autokontsumoa:

haragi- (gehienez 0,5 ALU,

50 oilasko

) eta arrautza-ustiategiak (gehienez 0,3 ALU,

30 oilo

), ekoizpena komertzializatzen ez dutenak.

Mikroustiategiak

: gehienez 1,5 ALU (

300 oilasko, 150 oilo

) eduki eta komertzializatzen dituenak.

Ustiategi murriztuak

: batz besteko errolda 70 ALUkoa da haragi-oilaskoentzat (

14.000 oilasko

), eta, gehienez, 70 ALUkoa oilo erruleentzat (7.000 oilo).

Oilaskoetan hazkuntza-sistema identifikatzeko derrigortasuna

Arau horrek gehituko duen beste berrikuntzetako bat ustiategi bakoitzean erabiltzen den

ekoizpen-sistema identifikatzea izango da haragi-oilaskoen kasuan,

II. eranskinean zehazten den moduan. Izendapenak honako hauek izango dira:

Hazkuntza ekologikoa

Barneko oilategia

Barneko estentsiboa

Landakoa

Landako tradizionala

Erabat aske hazitako landakoa

Baldintza tekniko barriak

Ustiategietan erantzukizuna duten pertsona eta erakundeei dagokienez, haien funtzioak modu argian zehazteaz gain,

ustiategiko albaitari bat izatearen beharra

gehitzen du.

Ingurumenaren arloan,

simaurraren kudeaketa egokia eta igorpenak murrizteko programa
eskatzen ditu. Bestalde, tamaina txikiko ustiattegietan izan ezik, gainerakoetan

teknika erabilgarri onenak

(TEO) aplikatu beharko dira.

Animalien ongizateari begira, araudi propioa ez duten fase eta espeziei dagokienez,

Europako Kontseiluaren Gomendioak gehitzen ditu nahitaezko arau moduan.

Bestetik, ustiategi guztiek hegazti-baserriak

kudeatzeko sistema integrala

izan beharko dute, non arauak zehaztutako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatuko den dokumentalki. Horrez gain, autokontrolaren kontzeptua gehituko da, eta

ustiategi albaitariak bisita-plan bat bete beharko du.

Joan den irailaren 26an amaitu zen arauaren aurkako alegazioak aurkezteko epea; Ministroen Kontseiluaren onespeneraren aurreko urratsa da hori.

Información de interés:

Hegazti erruleak

- MAPA

Haragiko hegaztiak

- MAPA

ELIKA

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .

berri@elika.eus

Close

Necessary

Always Enabled

Multilingual WordPress

with WPML